

KOMUNIKABIDEAK. Andrazko hamar kazetarik egunkari formatuko hilabetekari berria kaleratuko dute

'Andra', emakumeen ahotsa paperean

Egungo panorama informatiboan emakumea ez dela ageri begi-bistakoa dela uste dute sustatzaileek



XOUSE SIMAL

Hego Euskal Herriko kioskoetan urtariletik aurrera salgai izango den hilabetekariaren sustatzaileetako batzuk.

ATALAK

Sail berritzaileak

Egunkariaren edukiak ohiko sailen eske-
marekin hausten du. Irizpide berriak era-
biliz, bost sailetan dago banatuta.

SAKONTZEN. Gaurkotasuneko gai bat lan-
duko dute.

IKUSMIRA. Gaurkotasuna duten emaku-
meen gaiak landuko dituzte, generoaren
ikuspegitik.

EMAKUMEAK GAUR. Emakume taldeen ber-
ri emango du.

ETORKIZUNERA BEGIRA. Gizarte eztabaidak
islatuko dituzte orrialde hauetan.

AISIA. Bidaia, literatura, zinema, ipuinak,
diskoak eta abar izango dira hizpide.

Gorane Agirre | BILBO

Emakume kazetari talde batek *Andra*. Emakumearen ahotsa hilabetekaria kaleratuko du urtariletik aurrera. «Emakume kazetari eta emakume askoren ametsa da, paper bihurtutako ametsa. Behingoz emakumeei interesatzen zaizkigun gaiak lantzen dituen hedabide plural bat daukagu», esan zion EGUNKARIARI Nati Abril EHUKo irakaslea, kazetaria eta ekimenaren sustatzaileetako batek.

Abrilen hitzetan, «egunkaria, bere sorreratik, gizonezkoen kultur praktika bat izan da. Halaber, informazio orokorrekoa

deitu arren, esparru pribatua kanpoan uzten du eta botere zentro hegemonikoetan gizonezkoek garatutako jardueretara mugatzen ditu bere interesak. Egun, atzo bezala, egunero prentsak gizonezkoen boterearen egikaritzaren aipamen eta irudiz betetzen ditu bere orriak, eta emakumeak aldiro baino ez dira sartzen».

Egungo panorama informatiboan emakumea ez dela inondik ere ageri, eta hori begi-bistakoa dela uste du Abrirek. «Emakumeak ez gara hedabideetan agertzen ez albisteetako protagonistak izateko meriturik ez dugulako, baizik eta gizonez-

koen funtzionatzeko ikuspegi eta parametroei zaien atxikimendua oso tinkoa delako, esklusiboa ez esatearren».

Horregatik, egunkari formatuko hilabetekariak «komunikabideek, oro har, emakumeek sustatutako ekimenei eta beraieti benetan interesatzen zaizkien gaiei eskaintzen dieten arreta eskasa orekatu nahi du», azaldu zuen Marisa C. Gibajak. Era berean, argitalpen berri honen gizarte bidezkoago baten alde lanean diharduten beste elkarte mistoen adierazpide ere izan nahi duela aipatu zuen.

Gibajak *Andraren* lehen alean parte hartu duten beste emaku-

NATI ABRIL

EHUKo irakaslea eta kazetaria

«Emakume kazetari eta emakume askoren ametsa da, paper bihurtutako ametsa»


me askok bezala, aitarenez ez ezik amaren abizenaz ere sinatu du. Honek anekdota hutsa dirudien arren, argitalpenaren filosofia bera islatzen du. «Aipatzen ez dena ez da existitzen» premisa aintzat hartuta, *Andrak* hizkuntza ez sexista erabiliko

du. «Emakumeak baztertzen dituen ustezko generiko maskulinoaren ordeztu, bi sexuak izendatzeko balio duten ordeztu bera neutroak erabiltzeko asmoa dugu», azaldu zuen Gibajak.

15.000 aleko tiradarekin, egunkari elebiduna salgai izango da Hego Euskal Herriko kioskoetan urtariletik aurrera. Dena dela, harpidetza sistemaz ere eskuratu ahal izango da.

Hamar emakume kazetarik Txinparta Ediciones elkarte mugatua eratu dute egunkaria sortzeko. Etekinak emakumeentzako lanpostuak sortu eta profesionalak trebatzera bideratuko ditu.

2001 Agenda



BILINTX PAPER DENDA
BILINTX MEGADENDA
HONTZA LIBURU DENDA
GARAZI LIBURU DENDA
ERNAITZA LIBURU DENDA
STOP LIBURU DENDA
HIRE LIBURU DENDA
IRATZAR LIBURU DENDA
MIRENTXU LIBURU DENDA
ETXEPARE, BILINTX LIBURU DENDA
MASILLO, GONZALO LIBURU DENDA
AYERBE LIBURU DENDA
GOROSTIZA
LETE LIBURU DENDA
OLEARSO LIBURU DENDA
BERTSO HOP, BILINTX MEGADENDA
GERRIKO LIBURU DENDA
APATXO LIBURU DENDA
IBARRONDO LIBURU DENDA
BAGA BIGA LIBURU DENDA

DONOSTIA
DONOSTIA
DONOSTIA
DONOSTIA
ANDOAIN
ANDOAIN
ARRASATE
AZKOITIA
BEASAIN
BERGARA
DEBA
EIBAR
ELGOIBAR
HERNANI
HONDARRIBIA
IRUN
LAZKAO
LEGAZPIA
OÑATI
ORDIZIA

SALMENTA LEKUAK:

XENPELAR KULTUR DENDA
BILINTX TOLOSA
LIZARDI LIBURU DENDA
KIRIKIÑO LIBURU DENDA
URRETZINDORRA LIBURU DENDA
VERDES LIBURU DENDA
EGUNKARIAK LIBURU DENDA
MILOS PALENZUELA LIBURU DENDA
BIOK LIBURU DENDA
HITZ LIBURU DENDA
AMILOTX LIBURU DENDA
ARALDE LIBURU DENDA
BILLIKEN LIBURU DENDA
ARRIAGA MEGADENDA
AXULAR LIBURU DENDA
ABARZUA LIBURU DENDA
AUZOLAN LIBURU DENDA
XALEM S.L.
XALBADOR LIBURU DENDA
MATTIN MEGADENDA

ERRENTERIA
TOLOSA
BILBO
BILBO
BILBO
BILBO
ALGORTA
BARAKALDO
BASAURI
DURANGO
GERNIKA
LEKEITIO
AMOREBIETA
GASTEIZ
GASTEIZ
IRUÑEA
IRUÑEA
IRUÑEA
IRUÑEA
BAIONA

Egunkaria